



"Gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko estrategiak hezkuntza formal eta ez formalean" ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2022ko formakuntza planeko lau ikastaro antolatu ditu martxoan eta apirilean zehar

'Gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko estrategiak hezkuntza formal eta ez formalean' ikastaroaren lau edizio antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak martxoan eta apirilean. Formazio honen helburu nagusia izan da, administrazioko politikari eta teknikari arduradunei, bai gazteriaren arloan lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuetako profesionalei indarkeria sexistaren prebentzio eta esku-hartzerako baliabideak eskaintzea.


Ikastaroa **Eider Goiburuk** eman du, psikologialaria soziala, sexu-hezitzaile eta berdintasun teknikaria.

38 lagunek partehartu dute ikastaroan eta formakuntzak bi lan taldetan banatu dira:

- ✓ A taldea: hezkuntza formaleko langileez osatua egon da: irakasleak, orientatzaileak, hezkidetzak arduradunak eta hezkuntza teknikariak.
- ✓ B taldea: hezkuntza **ez**-formaleko langileen osatua egon da: hezitzaileak, kalehezitzaileak, eta gazteria teknikariak.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, bi egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta